



SORKUNEN KONTZERTU AKUSTIKOA GAUR

'Akustika Tour' birako kontzertua emango du Bonberenean, 22.30etik aurrera >2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2009-10-09

VIIURTEA 1.797.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



I.GARCIA

BEÑAT ARZELUS PILOTARIA

«Profesionaletan ikastea eta lan egitea izango da nire lehendabiziko helburua»

AMEZKETA Zazpi-Itturri elkarteko pilotariak debuta egingo du astelehenean, Frontis enpresarekin, Amezketako frontoian 3



Oroigarriak jaso zituzten Xabier Zabalok eta Barbara Newmanek. A.IMAZ

Pagoen kimatze prozesuaren egoera aztertzeko, bisita Ingalaterratik

LEITZA Londresko bi ordezkari eta Leitzako ordezkariak Leitzalarrera bisita egin zuten atzo 5

Trenbidea hainbat orduz itxiarazi zuen bonba abisua Tolosatik egin zen

TOLOSA Ustez Geltoki kaleko kabinatik egin zuen deia lagun batek, ET Aren izenean 6

'Erlea' aldizkari berriaren zuzendaritzaz arduratuko da Bernardo Atxaga

ASTEASU Lau hilabetez behin argitaratuko dute; atzo aurkeztu zuten Kursaal 4

akademia Pausoke

Hizkuntzak:
Arabiera, italiara, frantsesa eta ingelera
Malla guztiak
Irakasle gaituak

Errefortzu eskolak:
Letrak eta zientziak
Adin guztiak
Eguneroko jarraipena
Tamaina txikiko taldeak
Martin J. Iraola, 2 - behea
TOLOSA • Tel.: 943 67 24 48

Proba ezazu gure baserriko haragia

5 Kg-ko sorta 58€tan (banaketa DOAN)
Xerrek (hiru mota), haragi xehea, saiheskia, zankarra, gisatua, txuleta.

Egin eskaria eta etxera eramango dizugu:

943-30 43 32 (ordutegia: 9:00-17:00) edo saski@lurlan.org

Dendak: Bulevard 7 eta San Martin merkaturko C4 postuan (Donostia)

Remiri Herri Omenaldia

Larunbata, Urriak 10, 19:00etan, Villabonako Plazan

E Elkarrizketa**SORKUN RUBIO** ▶ Musikaria

Kultura ▶ 'Akustika Tour' birako kontzertua emango du gaur Sorkunek, hamasei urteko ibilbidea modu akustikoan biltzeko erronkari helduta.

GARI BERSALUZE

Kashbad taldearekin *Kashbad* (1996), *Distantzia* (1997) eta *Hesiak* (1999) diskoak, eta bakarlari gisa *Onna* (2002), *Duna* (2005) eta *Sorkun & Vice Presidentes* (2008) diskoak plazaratu ondoren, eta Fermin Muguruzarekin eta beste hainbat musikarirekin eta taldeekin kolaboratu ondoren, azken hamasei urteotan egindako lana modu akustikoan biltzea eta erakustea otu zaio Sorkun Rubio musikari oreretarrari. Gaur emango du «*erronka ausarta*» iruditu zaien ekimenaren kontzertua, Tolosako Bonberenean.

Sorkun formatu akustikoan. Nola sortu da 'Akustika Tour' delakoa?

Nire ekimena izan da. Hamasei urtean rockean, hardcorean edota reggae-rockean aritu eta gero, ez nuen gogorik berriro ere rock estiloko beste zerbait egiteko. Orain arteko abesti guztiak biltzeko eta horien oinarriko esentzia berreskuratzeko gogoa nuen, lagun gutxirekin, bi gitarra akustikorekin eta ahotsarekin soilik, zer gertatzen den ikusteko. Azken batean, Kashbadekin ateratako hiru diskoen eta bakarlari gisa argitaratutako beste hiru diskoen bilduma modukoa da, baina abestien erraiak erakusteko gogoarekin.

Sei disko horietan bildu arren kontzertuetan bazterrean utzitako abestiak berreskuratzeko aukera ere bada, beraz.


Hori da. Zenbait abesti, diskoetan argitaratu arren, kontzertuetan alde batera utzi izan baititugu, zuzenean jotzeko geldoegiak edota gozoeigiak zirelako. Orain, berez gustuko abestiak izan arren bazterrean utzi genituen horiek berreskuratzeko aukera izan du.

Ahotsa eta bi gitarra akustiko aipatu dituzue. Zein izango dituzue bidelagun?

Kashbad taldean aritu zen Gorka Sesma izango da bat. Aspaldidanik genuen elkarrekin zerbait egiteko gogoa, eta berak ere betidanik bluesarekiko interesa izan duenez, inprobisatzeko elkartu ginen, eta zuzenean zerbait egin zitekeela erabaki genuen. Bestetik, Iker Alvarez izango dugu bidelagun, The Hot Dogs taldeko gitarra-jotzailea.

Hamasei urte eta gero nolabait erregistroa aldatzeko gogoa aipatu duzue lehen. Zerbait isolatu soilik izango da hau?

Auskalo. Gauzek hasiera eta bukaera izaten dute. Normalean, orain



LANDER GARRÓ

«Eginda zeuden abestiak beste modu batera sortzea izan da, jolasa»

arteko diskoekin, urtebete inguruko birak egin izan ditut. Formatu akustikoan, ordea, abestiak hautatu ditzakezunez, errepertorioa aldatuz joan daiteke, aspertu gabe. Azken batean, rock abesti bat formatu akustikora pasatzea edota blues estilora prestatzea berezia bezain dibertigarria da, beste modu batera sortzen duzu azken batean abestia, eta horrek beti gauza berriak egiteko aukera ematen dizu. Era berean, hiru lagun soilik izateak, bidaiatzeko aukera ere asko errazten du, eta auskalo kanpoan ere zer eskaera izan dezakegun. Horregatik, kontu honek ohiko disko batek baino ibilbide luzeagoa izango duela nago, baina ez dut uste betiko estilo honekin geratuko naizenik.

Balizko disko baterako, emanaldiak grabatzeko asmorik ba al duzue?

Aukera zabalik daukagu, baina ez dugu oso argi kontu hori. Gaur egun, besterik gabe disko bat kale-ratzean ez dut fede askorik. Hau biribil aterako balitz eta jendearen egundoko erantzuna izango bage-n, zuzeneko bat grabatuko genuke akaso, betiko gera dadin eta jarraitzaileek diskoa izan dezaten. Baina hori erabakiz gero, iragarriko genuke noiz eta non grabatuko genukeen.

Zenbat denbora eman duzue abestiak hautatzen, formatu akustikora pasatzen, entseatzeko eta hau dena prestatzen?

Otsailean hasi ginen nolabait. Hila-begetako lana izan da, egia esan. Dena dela, esker oneko lana da, gustura egiten dena. Ez da komposatzea, eginda zeuden abestien artean gustukoena hautatzea eta horiekin jolastea da, azken batean. Beste modu batera sortzea. Benetan dibertigarria, egia esan.

Ekimena aurkezteko testuan hori nabarmendu duzue: abesti zaharrek ezberdin sentitzeko eta sentiaratzeko modua da hau.

Hori da. Guztia ahalik eta gehien murriztu, abestiaren sustraietara

heldu, eta bere horretan eman, ahotsarekin eta gitarrarekin soilik. Ez dakit nori entzun edo irakurri nion behin: abesti bat ona baldin bada, gitarrarekin eta ahotsarekin soilik aurkeztu daiteke, hezur dura sendoa duelako. Abestia ona baldin bada, horretara murriztu daiteke, gainerako osagai guztiak kenduta. Zentzu horretan, abesti asko moldatu ahal izan ditugu formatu akustiko honetarako, baina beste asko bidean geratu dira.

Batzuk bidean geratu dira, eta beste asko moldatu eta berriro sortu dituzue. Esaterako?

Rescue me, kasu. Vice Presidenten birasoarekin, ez zuen lekurik, eta orain berreskuratu egingo

dugu, gitarrarekin eta ahotsarekin, eta ederki geratu dela uste dut, biluzik, bossa nova estiloen erabat, batere makinarik gabe.

Lehenago abestiak formatu berrian aurkezteko, Sorkunen orain arteko kontzertuetarako ohikoak ez diren lekuak hautatu dituzue...

Bai, klub moduko kontzertuak

Abesti bat ona baldin bada, gitarrarekin eta ahotsarekin soilik aurkeztu daitekeela diote

Orain arte egin dudaren aldean erabat desberdina den zerbait da hau

Abesti asko moldatu ditugu formatu akustikorako, baina beste asko bidean geratu dira

izango direla aurrekisi dugu hasiera batean, areto txikietan, antzoki antzekoetan, eta horrelakoetan. Leku itxiak izango dira, argi zehatz batekin. Akustika Tour hau ez da, nire ustez behintzat, txosnetarako edota antzekoetarako modukoa. Beste zerbait eskatzen duelakoan nago.

Zentzu guztian, entzulea askoz hurbilago izango duzu orain emanaldietan.

Bai, orain arte egin dudaren aldean erabat desberdina den zerbait da hau. Nolabait aipatzearren, Anariren, Ruper Ordorikaren edota Txuma Murugarrenen zirkuitoetako aretoak dira orain erabiliko ditudanak, orain arte ez bezala. Azken batean, abestien formatuak berri: behin behin: abesti bat ona baldin bada, gitarrarekin eta ahotsarekin soilik aurkeztu daiteke, hezur dura sendoa duelako. Abestia ona baldin bada, horretara murriztu daiteke, gainerako osagai guztiak kenduta. Zentzu horretan, abesti asko moldatu ahal izan ditugu formatu akustiko honetarako, baina beste asko bidean geratu dira.

Horrek orain arte Kashbad edota Sorkun iritsi ez den den entzule zehatz batengana heltzeko atea zabaltzen dizu.

Beharbada. Beharbada, lagunena ama guztiengana iritsiko naiz orain. Izebengana, osabengana. Beste belaunaldi batengana, azken batean.

Era berean, Kashbad edota Sorkun ezagutu ditugunok beste modu batera egongo gara abesti ezagunen aurrean.

Hori kuriosoa izango da. Ederra izango da alde batetik. Baina beste batetik beldurra ere ematen digu horrek. Dokako emanaldian jendea zutik egongo da, leku kontuagatik, baina kultur etxe batean edota antzeko areto batean, jendea edota erre ezin duen leku batean, gu ere arraro sentituko gara. Berria izango da guretzat ere, eta beldur diogu gurekin beste modu batera ohitu den jendeak nola erantzun duen honelako zerbaitena urrean. Erronka ere, ordea, ederra da.

BLUES ABESTIEN BERTSIOAK ERE BAI

Azken hamasei urteotako abestiak hautatu eta formatu akustikorako moldatzeaz gain, bluesaren historiak eman dituen zenbait abesti ere bertsionatzeko erronkari heldu dio Sorkunek bira honetan. «Nire aldetik, egundoko ausardia eta aurpegia edukitzea dela iruditzen zait, baina lizentzia eman diot nire buruari, oso gustura aritu naizelako eta ondo pasatu dudalako».

Guztira, blues estiloko lau abesti hautatu ditu, eta horien bertsioak joko dituzte bira honetan. Bertsio horiek dagoeneko entzun daitezke Sorkunen *myspace* atarian. «Rap munduko lagun askorekin kolaboratu izan dit urteotan, eta horietako hainbatek esan izan dit zerbait egin behar nuela musika beltzarekin, soularekin». Behin formatu akustikoari helduta, «ia oharkabean etorri da blues musikaren bertsioak sartzea», dio artistak.

E Elkarrizketa

BEÑAT ARZELUS ▶ Pilotaria

Amezketaketa » Frontis enpresarekin profesionaletan debuta egingo du Beñat Arzulusek Amezketako frontoian; azken urteetan bertan egin da pilotari.

IMANOL GARCIA

Beñat Arzulusek (Donostia, 1991) profesionaletan debuta egingo du astelehenean, hilak 12, 17:00etan, Amezketako frontoian. Sei urte eman ditu herriko Zazpi-Isturri pilota eskolan eta azken urteetan bere frontoia izan den horretan egin nahi izan du debuta.

Nolatan hasi zinen pilotan?

Aita eta aitona frontoian ibilitakoak dira eta beraiek txikitzen eraman ninduten frontoira eta horrelaxe hasi nintzen. Hasieran jolas bat izan zena gero ilusio bihurtu zen.

Beste kirolik egin duzu?

Ikastolan egin izan dugu futbola, txirindularitza eta eskubaloia ere bai. Baina azkenean pilota izan da gehien deitu nauena.

Amezketako Zazpi-Isturri elkarrean aritu zara. Nola iritsi zinen horra?

Hasieran Alde Zaharreen aritu nintzen. Gero Añorgara ere joan nintzen urtebetez. Gero berriz esan zidaten Alde Zaharrera itzultzeko. Bertakoak esan zidan Amezketan bazegoela entrenatzaile oso on bat eta ea zergatik ez nintzen bertara joatean. Horrela joan nintzen eta esan zidan bertan gelditzeko eta oraintxe arte jarraitu dut. Duela 5-6 urte izan zen.

Eta zer topatu duzu Amezketan urte hauetan guztietan?

Amezketan aritzea izan da beste maila batean ibiltzea. Pixkanaka joan naiz sartzen. Beste exijentzia izan da bertan eta txapelketa gehienak mailakoak ziren eta horrek azkenean egiten dizu ohitzen joatea eta joko-maila horrek hobetzen zaitu.

Zein izan da zure ibilbidea txapelketetan?

Gipuzkoako Txapelketa beti gustatu izan zait. Beti ibili gara nahiko maila onean. Bost urtetan jarraian iritsi naiz finalera, kadeteetatik



I. GARCIA

«Profesionaletan hasierako helburua ikasi eta lan egitea da»

hasi eta afizionatu mailara arte. Nahiko pozik. Hori bai, final batzuk irabazi eta beste batzuk galdu egin ditut. Gero El Diario Vasco Txapelketaren finalera iritsi nintzen iaz eta 22-21 galdu genuen. Herriarteko Txapelketan ere finalera iritsi gara hiru aldiz Donostiarekin. Lehenbizikoan Azpeitikoek egurra eman ziguten eta beste bietan 22-21 galdu genuen.

Frontisekin debutatuko duzu,

baina Aspe eta Asegarcerekin ere aritu zara entrenatzen.

Bai hauekin egon nintzen entrenatzen. Asegarcerek esan zidan zerbait, baina azkenean entrenatzen eta jarraitzeko esan zidaten biek. Azkenean Frontisek egin zidan eskaintza eta pentsatu ondoren baiezkoa esan genien. Bi urtez egin dugu kontratua, 2011ra arte.

Entrenamenduei dagokionez eta egoera aldatuko zaizu orain.

Frontisek Bizkaian, Araban eta Iruñean ditu entrenatzeko lekuak. Izan dute Beasainen entrenatzeko lekua, baina arazo batzuk izan dituzte eta orain ari dira saiatzzen berriaz ea aukera izaten duten.

Bestela Iruñeara-edo joan beharko duzu.

Nik ere interesa badaukat. Nahiz eta Iruñeara joan behar, gustura joango nintzen, beraiekin entrenatzeko eta ezagutzeko ere.

Zer txapelketa jokatu duzute orain?

Frontisek berak txapelketa multzo bat du. Pilotari guztiak hartzen dute parte txapelketa horietan. Hamasei pilotarik jokatzeko dugu eta pauso onada, beti berdinak ez garelako jokatzeko ibiliko.

Debuta egiteko Amezketaketa aukeratu duzu. Zergatik?

Taldearentzako eta entrenatzailearentzako pozgarri bezala. Nire atzetik ibili dira urteetan zehar. Gustatuko litzaidake Atanon egitea ere bai, nire hirian, nire gertuko

Amezketan ondo portatu dira nirekin eta azkenean debuta bertan egitea pentsatu dut

Bi esku on dituen pilotaria naiz, bi esku indartsu dituen, baina burua kokatu beharra duena

jendea errezago joateko. Baina han Amezketan, ondo portatu dira nirekin, eta azkenean bertan egitea pentsatu nuen. Gainera frontoia ere ezagutzen dut. Partida ikusi nahi duenak mugituko da ere.

Zeinek jokatu duzue?

Bi partida izango dira. Lehenbiziko partidari izango da Antxia-Altuna eta Urdaniz-Garmendia artekoa. Bigarren partidari izango da Bengoetxea VII.a eta Zabala, Amantegi eta nire aurka izango da.

Ezagutzen dituzte pilotariak?

Batez ere Garmendia, taldekidea izan da. Amantegi ere bai. Bera afizionatua zenean ni jubeniletan nengoen. Partidetan ikusi izan gara. Beste pilotarien berri badut.

Zein da zure erroka bi urte hauetarako?

Lehenbiziko helburua ikastea da, tokia hartzea. Atzean jakin jokatzen. Gero, segitzeko aukera badut, hasiko naiz beste gauza batzuetan pentsatzen. Baina hasieran behintzat, ikasi eta lana egin.

Atzelari bezala aritzen zara. Nola definitzen zara pilotari bezala?

Kolpea duen pilotaria, bi esku onak dituen, bi esku indartsuena, baina burua kokatu beharra duena. Frontoian batzuetan aldegiten naiz eta hasten naiz tontokeriaren egiten.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Astebururako areto futbola, pilota partidak, BBT eta mendi irteera

Villabona » Gaur hasi eta igandera bitartean kirol igandeko irteeretan parte hartzeko aukera dago.

E. MAIZ

Kirol eskaintza zabala dago Villabonan. Gaur 20:30ean, Olaederra kiroldegian, Gipuzkoako 2. mailako areto futbola izango da Urritzta Jatetxea eta Bilkoen Legorreta taldeen artean.

Larunbatean, 11:30ean, Bearzana frontoian, kadeteetan eskuz bi-

nakako Kutxa sariko pilota partida jokatuko dute Beharzana 1 eta Azkoitikok. 16:30ean, Olaederra kiroldegian, areto futbola izango da (Nazional B. maila): Transportes Lakunza, Iturriondo Zurbaranbarriren aurka.

BTT eta mendi irteerak

Igandera Aizkardik bi irteera antolatu ditu. 07:00etan Olaederra kiroldegitik atera eta BTT irteera Bardeetara eta 08:30ean aterata goizez egiteko mendi irteera; Larraiztik abiatuko dira eta Alotza eta Uzkuiritik igaroz Larraizten bukatuko dute.

Laburrak

Urriaren 27an Deloradora Alkartasuna Biltokitik

ANOETA » Anoetako Alkartasun Biltokiak Burgoseko Deloradora herrira bidaiari antolatu du. Bidaiaren barruan, gosaria eta bazkaria sartuta daude. Deloradora herria, besteak beste, Plaza Nagusia, San Pedro eta Santa Maria Elizak eta larrua lantzen duen lantegi bat bisitatuko dituzte. Bidaiari, urriaren 27an izango da eta 07:30etik plazaatik aterako dira. 13 euroren truke gutzia barne izango du izena ematen duenak eta bazkide izan edo ez, prezio bera izango dute. 40 lagunek taldea osatu beharko da eta izena emateko azken eguna urriaren 25a izango da.

Kanpoko Desfibriladore Automatikoaren ikastaroa

TOLOSA » DYA Gipuzkoako antolatuta, DEAKo ekipoen erabilerarako ikastaroa antolatu dute urriaren 19 eta 20rako Tolosan. Bi egunetako ikastaroa 16:00etatik 20:00etara izango da DYAKo ordezkaritzan, hau da, Larramendi 7 helbidean. Bihotzaren taupadak neurtzeko, hilgarriak eta desfibrilazioa behar duten arritmiak identifikatzeko balioko du ordenagailuko sistema honek. Matrikularen kostea 100 eurokoa da eta ikastarorako txostena barnean hartzen du. Izena emateko edo informazio gehiago jasoitzeko deitu 943 464622 telefono zenbakira.



Bernardo Atxaga, Kursaalaren atzo egin zen aurkezpen ekitaldian. HITZA

Atxagaren esku 'Erlea' Aldizkariaren zuzendaritza

Asteasu » Atzo Kursaalaren aurkeztu zuten lau hilabetez behin aterako den Euskaltzaindiaren 'Erlea' aldizkari berria.

ENERITZ MAIZ

Atzo aurkeztu zuten Donostiako Kursaalaren *Erlea* kultura aldizkari berria. Euskaltzaindiak argitaratzen du, eta Jose Irazu, Bernardo Atxaga, idazle eta euskaltzain osoa da bertako zuzendaria. Edizioaz eta diseinuaz, Pamiela argitaletxea arduratuko da.

Nevadako egonaldia

Aurkezpen ekitaldian, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Bernardo Atxaga izan ziren. *Erlea* aldizkaria, Euskaltzaindiak abian jarri duen egitasmoa da eta Akademiaren eta kulturetzaren arteko lotura sendotzea du helburu. *Erlea* literaturarekin lotutako aldizkaria da eta lau hilabetez behin argitaratuko da, Bernardo Atxaga asteasuarraren zuzendaritzapean.

Asteasuarrak, Nevadan egindako egonaldian, Euskaltzaindiaren kinkin sortu asmo zuten aldizkariaren proiektua zuen gogoan. Borden liburutegian, «kafe eta txokolate artean», mundu osoko literatur aldizkariak ikusmiratu zituen. Agerkari berriak zer nolako egitura izango zuten, zer nolako atalak, zer nolako itxura...

Hiru urte eta erdi igaro dira Bernardo Atxaga euskaltzain oso izendatu zutenetik. Euskaltzaindiak gizarteratzeko eta eraberritzeko zuten asmoari erantzuten

zion Atxagaren izendapenak. Hark ere bat egin zuen erronka horrekin, eta hasieratik garbi samar izan zuen euskal kultura, Euskaltzaindiara erakartzeko eta eite berri bat emateko modu egokiena aldizkari bat sortzea izan zitekeela, hau da, literatur aldizkari bat. Denbora guzti horretan, egitasmoa osatzen eta taxutzen egon ondoren, plazan da dagoeneko lehen alea.

Ale bakoitzak atmosfera bat

Lehen alea, Far-west-aren edo urruneko mendealdearen atmosfera duena da. «Ale bakoitzak bere atmosfera izango du Nevada egindako egonaldiak, bertako idazleekin harremanetan jartzeko, euskal-amerikarren berri izateko, eta argazkiez ongi hornitzea kobalio izan ziguen, eta hurabaliatu dugun», esan zuen Atxagak atzo egindako aurkezpenean.

Lehen alea AEBetako mendealdean giroa izan den bezala, bigarrenak Irlandako atmosfera izango du, hirugarrenak Afrikakoa eta laugarrenak Suediakoa izango duela aurreratu du dagoeneko Asteasuko idazleak. Hasiera batean, hamar ale egiteko konpromisoa hartu du Bernardo Atxagak.

136 orrialde eta 1700 ale

136 orrialdeko aldizkaria da lehen ale hau, aldizkaria baino gehiago liburua dirudi. Argazkierderrez hornitua eta estetikoki guztiz zaindua (Txema Aranazaren ardurapean). Euskaltzaindiaren babesa eta Pamiela argitaletxearen laguntza duen aldizkaria gaurtik dendetan salgai dago, 12 euroren truke.

Gutxienez, hamar aleko iraupea izango du agerkiari, baina argitaratzen den zenbaki bakoitzak, 1700 aleko argitaraldia izango du, ez gutxiago eta ez gehiago. Eta aldizkariaren izen azpikoak ere hala dio: 1700en aldizkaria. Zergatik? «1700 ale ateratu ditugu eta gogoan 1700 erosle daukagu, kasu honetan lehen irakurle. Nire esperientziaren arabera horrek badu zentzu handia. 1700 irakurle inguruan dabil muga, izan ala ez izan. Uste dut, benetan, 1700 irakurle osaturiko gunea baldin bada, literatura heda dezakeela bere hizkuntzaren barnean», azpimarratu du Atxagak.

Idazle askoren parte-hartzea

Lehen zenbaki honetan parte hartzen dutenen zerranda luzea da: Kolesti Agirresarobe, Kepa Altanaga, Pablo Antoñana, Jon Arano, Aurelia Arkotxa, Joxean Artze, Mikel Asurmendi, Jon Aurre, Marisol Bastida, Frank Bergon, Harkaitz Cano, William Douglass, Irati Elorrieta, Miel A. Elustondo, Estibalitz Ezkerra, Aritz Galarraga, Asun Garikano, Jacinto Iturbe, Joxemari Iturralde, Koldo Izagirre, Xabier Kintana, Mariusun Landa, Monique Laxalt, Bruce Laxalt, Anjel Lertxundi, Xabier Lete, Karlos Linazasoro, Ania Miner, Victor Moreno, Toño Muro, Mari Jose Olaziregi, Lourdes Otaegi, Gloria Totoricagüena, Kirmen Uribe, Andres Urrutia, Gabriel Urza Laxalt, Justin Webster eta Iban Zaldua.

Beraz, literaturaz gozatu nahi duenak, 1700 ale horietako bat eskura dezake gaurtik aurrera.

mantangorrek Zinema etxean 4
6 DVD euskaraz
Larunbat honetan 1. DVDa + kaxa opari
Gipuzkoan eta Nafarroan
arraina haiz
berria

HARRIDEDUNENTZAT
BILDUMA OSOA: 26 €
ESKARIA: EGITEKO: 943 39 43 45
harpideta@berria.info
edo www.berria.info

Babesa: **BERRIAN**
KULTURAREN ERKUNTZA
2009-2010

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

Aurrera Pilota Eskolak ikasturte berriari hasiera eman dio 63 haurrekin

Leitza » DV Torneoaren jaialdia ospatuko da Amazabal pilotalekuan gaur 19:30ean; Iriarte eta Renobales ariko dira.

ASIER IMAZ

Ikasturte berriarekin batera pilota poteka jarri dute Aurrera Pilota Eskolan. Ikasturtea jada martxan da eta klubeko arduradunak «oso gustura» aurkitzen dira. Zergatik? «Gorantz goazelako».

Eskolarekin batera, Diario Vasco Txapelketaren jardunaldi berri bat jokatu da Amazabal pilotalekuan gaur 19:30ean. Bertan besteak beste Renobales alegiarra eta Iriarte leitzaarra irtengo dira kan txara. Leitzaatik *Denak pilotalekura* leloa zabaldu nahi izan dute.

Aurrera Pilota Eskola martxan

Entrenamenduak normaltasunez hasi dira ikasturte berriari: «Lau egunetan aritzen gara: astelehena, asteartea, asteazkenetan eta ostegunetan». Txikiak egun



Aurrera Pilota Eskolak martxan jarri du ikasturte berria. Herri artekoa izango dute helburuetako bat. NAIARA GARZIA

bakoitietan joaten dira pilotalekura eta helduagoak bikoitietan.

Izena eman ez dutenek edo oraindik zalantzan aurkitzen direnek, Eskolako arduradunak entzunda, lasai pentsatzen jarraitzeko parada dute, izan ere «Aurrean urte guztian atek eta baita

leihoak ere zabalik egoten dira. Ez haizea sartzeko bakarrik, pilotarietzat ere bai».

Aurtengo ikasturtean 10 haur berrik eman dute izena, gauzak horrela, guztira 63 pilotarik osatzen dute Eskola. Zerbaki hauen aurrean arduradunak oso gustura

daude. «Gorantz goazelako eta Leitza bezalako herri batentzat hori asko delako».

Begiraleei dagokienez, iaz bezala hiru izango dira aurrean ere, nahiz eta izen bat aldatu egingo den: «Astelehena Mikel Saenz egongo da. Ibai Bengoetxeak be-

rriz ez du jarraituko, lanagatik. Bere lekuan Unai Onsalo aresoarra etorriko da asteartean eta ostegunetan. Asteazkenetan Txopereak jarraituko du».

Entrenamenduz gain, urriaren 17-18an Nafar Jokoak hasiko dira. Ikasturtean zehar hiru edizio edukitzen dituzte joko bere hauek: «Hemen haur guztiak dute parte hartzeko aukera, berdin dio altuak edo baxuak diren. Helburua umeek urte guztian zehar partidak jokatzea da. Udako oporren inguruan amaitzen dira Jokoak, orduan denak etxera».

Hastear dauden partidekin batera, jokatzen ari diren txapelketak ere aipatu nahi izan dituzte Aurrerako arduradunek, horien artean ondorengoetan aurkitzen omen dira Aurrerako pilotariak: Burlatako Txapelketan, Lizarrakoan eta Arrotzapekoan.

Diario Vasco Torneoa

Amazabal pilotalekuan DV Txapelketaren partidak jokatuko dira gaur 19:30ean.

Jaialdiko bigarren partidari Itrioren Iriarte bikoteak Renobales-Lopez edukiko dituzte aurrean. Leitza bat eta alegiar bat ikusteko aukeraz gain, «partida polita» aurreikusten dute adituek, horregatik, «denak pilotalekura» joateko gomendioa luzatu dute.



Londrestik Leitzako pagoen itzalera

POLITIKA » Ingalaterratik bi ordezkari etorri ziren atzo Leitzara: Londresko udaleko zinegotzi bat eta teknikari bat. Azken urteotan Ingalaterratik etorritako ordezkariak eta Leitzakoak elkarlanean ari dira, pagoen ki-

matze prozesuaren inguruan. Atzoko bisita lankidetzaren baitan kokatzen da. 10:00etan Leitzalarrera itzuli bat eman zuten eta 12:30ean, «euren ordutegian», bazkaria egin zuten. A. IMAZ

Lizartzako presoan argazkien aurkako bideoa erantzunik gabe

Politika » EAK Eusko Legebiltzarrean bideoaren inguruko galdera sartu nahi zuen, baina Mahaiaik atzera bota du itauna.

gabe» zegoela esanaz, «galdera batean bi» egiten zituela. Ekimena onartu izan balitz, gaur eztabaidatuko litzateke kontrol saioan.

«Irakurketa oso murrizta»

EAKo legebiltzarkide Jesus Mari Larrazabalek kritika egin zuen Mahaiaik Legebiltzarreko araudiaren irakurketa «oso murrizta, eta ia paranoikoa» egin zuelako. Erabakiaren helburu bakarra Herrizaingo sailburuari «enbarazu» egiten dion galdera bat kentzea izan zela salatzen. Nolanahi ere, jakinarazi du galderamoldatu egin duela, eta berriro aurkeztu.

ERREDAKZIOA

Eusko Alkartasunak Herrizaingo sailburuari, Rodolfo Aresi, argibideak eskatu nahi zizkion euskal presoan bi argazkiri tiroka ageri diren bideoaren inguruan. Galdera ordea ez du tramitera onartu Eusko Legebiltzarreko Mahaiaik, «EAREN itauna ongi planteatu

Urriak 11, igandea 17:30ean
Udal kiroldegia - LEITZA

IKO OLAITZA ANHINA AGIRREZALDEGI I. MARZESOR "MARTI"
BON AURIA XABER SUKIA ETXAHUN LEGUE

Urriak 11, igandea 17:30ean
Arriaga antzokia - BILBO

AGER OLMENDE AMALAGIRRE JULIO SORO
MADOLEN ARZALLUS FAKI ZELAYA JESUS MARI IBAZI

2009

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

www.txapelketanagusia.eu

hitza



Arkaitz Izagirrek eta Beñat Lopezek ordezkatu zuten Beotibar taldea. E. EZEIZA

Tolosakoak ongi elkarleen arteko kopan

Zesta-punta » Palentzian jokatu zituzten Espainiako finalurrekoak; bertan lehiatu ziren Beotibarkoak; galdu egin zuten partida.

ERREDAKZIOA

Joan den asteburuan jokatu ziren Palentzian (Espainia) Elkarle Artako Zesta Punta Koparen finalurrekoak eta finalak. Bertan izan ziren eskualdekoak, eta Beotibar

Zesta Punta Elkarleak jubeni mailan lortu zuen finalurrekoetarako sailkatzea. Tolosako ordezkariak Beñat Lopez eta Arkaitz Izagirre izan ziren. Finalurreko gogor batean, Donibane Lohitzuneko Luzaz-Gazte taldeko bikotearen aurrean amore eman behar izan zuten, 30-25eko emaitzarekin. Hala ere, gustura itzuli ziren mutilak Palentziatik, Europako Kopan hurrengo lehiaketetan aurtengogan egindako lana hobetzeko asmoarekin.

Laburrak

Batxilergoko titulua Orixe institutuan jaso daiteke

HEZKUNTZA • Joan den ikasturtean, hau da, 2007/2008an Laskorain ikastolan Batxilergoko ikasketak burutu zituztenek dagoeneko jaso dezakete titulua. Horretarako, Orixe Institutura joan behar dute. Argibide gehiago nahi dituztenek eta aldi berean, zalantzak argitzeko, ondorengo telefono zenbakietara deitu dezakete ikasle ohiek: 943 69 71 22 (Laskorain) eta 943 65 13 87 (Orixe).

Tolosaldeko gazteentzat egun pasa urriaren 24an

AISIA • Denak tabernakoek egun pasa antolatuta dute, eta eskualdeko gazte guztiak gonbidatzen dituzte. Hau hilaren 24an izango da. 09:30ean, tabernan bertan gosalduek ondoren, Getaria aldera joango dira poteatzera. Handik, Lasturerra, bazkaltzera, eta gero zezenetan ibiltzera. Iluntzean Tolosara itzuli ko dira parrandarako. Hara joateko txartelek 35 euro balio dute eta bertan eros daitezke.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Sutarako egurra.** Sutarako egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetrotara moztua. Etxera eramaten dugu. Harremanetan jartzeko deitu 615 75 57 62ra.
■ **Terrazako aulkia.** Terrazako 28 aluminiozko aulki salgai. Taberna eta kafetegietarako egokiak. harremanetarako telefono zenbakia: 665 75 26 07.

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Harremanetarako

telefono zenbakiak: 695 70 82 71 (Belen) eta 638 94 46 04 (Gurutze).

EROSTEKO

■ **Traspalet karretila.** Bigarren eskuko traspalet karretila bat erosiko nuke. Harremanetako deitu 648 00 47 98 telefono zenbakira.

AURKITUAKOAK

■ **Ordularia.** Joan zen urriaren 2an, ordulari bat aurkitu zen Irurako jaietan. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 619 57 61 25era.



Zaldibiako pilotalekuan jokatu ziren lehen jardunaldiko partida batzuk; bertan eskualdeko pilotariak izan ziren. E. EZEIZA

Ezker Hormako Emakumea Pilotariko partidak gaur

Pilota » Orion hiru partida ikusteko aukera izango da 19:00etatik aurrera; Nagore Arozena eta Itxaso Urkizu bertan lehiatuko dira.

ERREDAKZIOA

Gaur jokatu da ezker hormako IV. Emakumea Pilotari txapelketako bigarren jardunaldia Orioko Udal Pilotalekuan. Lehen jardunaldia Urretxuko eta Zaldibiako pilotalekuan jokatu zen iragan larunbatean eta orain kostaldera joko dute.

Guztira hiru partida jokatu dira Orion. Lehendabizikoa 19:00etan hasiko da. Denak lehen mailakoak izango dira, gainera, 2.

mailako pilotariak jai izango dute asteburu honetan.

Lehen partidaren lehen mailan estreinakoz ari diren bi atzelari (Inziarte eta Maddi Mendizabal) izango dira nor baino nor. Aurrelariak esperientzia handiagoa dute, beraz, euren dagokie ardura nagusia hartzea.

Bigarrenaren, berriz, garaipen bana lortuta, multzoko lidergoak izango dute jokoan Etxegia-Arozena eta Redondo-Montes bikoteak. Maite Redondo oriotarrak Ainhoa Montes astigarragarrarekin jokatu du, baina, Mirari Etxegia eta Nagore Arozenak osatutakoa ere oso bikote orekatu eta erregularra da. Nagore Arozena trinketeko egungo munduko txapeldunetako bat da. Beraz, ez da ikusmin

eta tentsiorik faltako bigarren norgehiagokoa honetan.

Jardunaldia itxiko duen partidaren, berriz, lehen garaipenaren bila kantxaratuko dira lau pilotariak, aurreko asteburuan galdu ostean. Tartean arituko da Orioko pilota elkarte kide den Dolo Errasti atzelari aginagarria.

Txapelketa honek Urola Kostan beste hiru geldialdi ere izango ditu, seigarren eta zazpigarren jardunaldietan, eta finalak ere eskualde berean jokatu dira. Aian jokatu ko da azaroaren 7ko jardunaldia- n erdia eta, Getarian, berriz, azaroaren 14an, 2. mailako finalerdiak jokatu dira bertako pilotalekuan. Finalak, iazko arrakastaren ondorioz, Zarauzko Aritzbatalden jokatu ko dira azaroaren 21ean.



«Bonba abisu bat», Tolosatik

ERASOA • Atzo, 10:20an ET Aren izenean hitz egiten zuen lagun batek Irun eta Zumarraga arteko (Gipuzkoa) Renferen tren sarean hiru bonba zeudela ohartarazi zuen. Abisuaren ondorik, 11:45ean Irun eta Zumarraga arteko trenbidea eten zuten. Iturriek jakitera eman zutenenez, Tolosako Geltoki kaleko telefono kabi-

natik egin zuten deia eta horregatik Ertzaintzak eta Tolosako Udaltzaingoak herriko hainbat kale itxi zituen gurutzebide horren inguruan. Pare bat ordutan normaltasunera itzuli zen herria, eta arratsaldean, normaltasunez hasi zen lanean Renferko tren zerbitzua. E. EZEIZA

tolosaldeko hitza. iragarkilaburra.com

Astearte arratsaldeko 15:00ak arte jasotako iragarkiak soilik argitaratuko dira.
IRAGARKIAK JARTZEKO: www.tolosaldeko hitza. iragarkilaburra.com / 943-6556 95 telefono zenbakira

Etxebizitza 1.1 SALGAI

Alegia. Alegian, Larraitza auzoan, etxebizitza berriua salgai. Sukaldea ederra, bi logela, egongela eta bi bainu-gela. Prezioa: 174.000 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 669-827096

Alegia. Alegian, San Juan auzoan, etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea eta egongelarekin. Prezioa: 156.000 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 669-827096.

Berriatua. Etxebizitza salgai Berriatua. 72 metro karratu. Bi logela, komuneta eta sukalde-egongela. Berriatua eta gutxi zantzia hartuko aukera. Prezio negoziagarria. Deitu 94-6166419 edo 94-6139056 telefonoetara.

Ondarroa. Etxebizitza salgai Ondarroa, Kaminazpin, frontoi aurrean. 3 logela, komuneta eta sukalde-jantokia. Prezio negoziagarria. Telefonoa: 667-299081.

Tolosa. Tolosako Gorosabel kalean, bi etxebizitza saltzen dira. Toki oso onean. Bat 180.000 euroan eta bestea berriz 156.000 Euroan. Harremanetarako telefono zenbakia: 669-827096

1.2 ERRENTAN EMAN

Donostia. 2009-2010 ikasturterako etxebizitza ematen da errentan, Antiguana. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuneta. 618-015144

Ordizia. Pisu alokatzen da Ordizia erdiguinean. Altzariz hornitua, 2 logela, eta igogailua. Deitu: 943-889580

Tolosaldea. Villabonan eta Iruan etxebizitza alokatzen dira. Bat 600 euroan eta bestea 650ean. Harremanetarako telefono zenbakia: 669-827096

1.3 ERRENTAN HARTU

Atau. Etxebizitza behar da alokairuan Atauena. Pertsona helduak. Deitu: 665-705373

Getarian edo Zarautzen urte osozko pisu txiki baten bila nabil. Telefonoa: 652-746196

Lekeitio. Lekeitio urte osozko pisu txiki baten bila nabil. Telefonoa: 658-701953

1.4 PISUA KONPARTITU

Donostia. Gela alokatzen dut Egia auzoko etxe batean, irailaren 26tik ekaina bitartean. Etxea oso txukuna da,

eta baita gela ere: ohe bikoitza, sillon eta armarioa. Gladys Enea parketik eta Tabakaleratik oso gertu. Bakarrik bizi naiz. Interesatuta egonez gero bidali mezua senebastian70@yahoo.es helbidera. Mila esker.

Usurbil. Pisu bila nabil Usurbil inguruan, pisua konpartitzeko.

2 Motorra 2.1 SALGAI

California-Confortline salgai. California-Confortline, 2,5 TDI. 48.000 km. 4 urte. Oso ondo dago. 36.000 euro. Ikusi edo probatzeko joshemendi@yahoo.es helbidera idatzi edo telefono honetara deitu: 695-753761

Ford Transit Connect Van zuria salgai. Ford Transit Connect Van zuria salgai. 2008koa. Lanerako prestatura, kristal bako kaxa, bi eserleku, frontoi publiko txartela, oso kilometro gutxi. Oso prezio ona. Deitu 10:00etatik 13:00etara edo 16:00etatik 19:00etara. 672-624233

Opel Corsa Joy. Opel Corsa Joy, 1.400 cc, 16v, 38.500 km eta 4 urte. Oso egoera onean. 6.900 euro. 688-617677

3 Garajeak 3.1 SALGAI

Alegia. Alegian, San Juan kalean, garajea marra salgai. Prezioa: 18.000 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 669-827096.

4 Lana 4.1 LAN BILA

Azpeitia. 20 urteko neska eskulduna, haurrekin lanean esperientziaduna bai begirale moduan, zainzaile moduan... Arratsalde hau-rrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 606-426414

Goierrri. Adineko jendea edota ospitalean ingresatuta dagoena zaintzen dut eta esperientzia handia daukat. Informazio gehiago nahiz izanez gero, hau da nire telefonoa: 645-681815 (Maria)

Irua. Giza elikadura eta dietetikan diplomatu naiz eta honekin zerikusia duen lanen baten bila nabil. Irati. 697-522048

Tolosa. 49 urteko autonomia naiz nik lokala jartzten dut eta zuki ideiak edo lana baduzu harremanetan jarri mesedez.

Tolosaldea. Bigi garbitasunak: Alfontak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Gurutze: 638-944604.

Belen: 695-708271.

Tolosaldea. Emakume eskulduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Interesatuak deitu 665-720426 telefono zenbakira.

4.2 LANGILE BILA

Andoain. Andoingoa izatea ezinbestekoa. Jardunaldi erdia. Interesatuta dagoen orok deitu telefono zenbakia honetara: 695-714616

Euskal Herria. Erakunde publikoetan lan egiteko auto gidariak behar dira. Soldata altua eta kontratu mugagabea. Deitu: 671-689869

Goierrri. Bertako neska bat zaintzeko eta garbiketa egiteko. Esperientziaduna. Ondo ordaintzen da. 609-413897

Lazkao. Zerbitzaria behar da Lazkao. Beharrezkoa da eskarmentua izatea eguneko muenetan eta barran. Harremanetarako telefono zenbakia: 943-088088. Alberto - Nerea

Tolosaldea. Banatzaile gidaria behar du. Tolosaldekoa. Interesatuak deitu 648-004798 telefono zenbakira.

Tolosaldea. Emakume bat behar da adineko pertsona bat zaintzeko. Interesatuak deitu 679-819042 telefono zenbakira.

Urretxu. Urretxu eta Zumarragako udaletako euskaraz zerbitzuek haur eta gazteko etorkinekin, eskolaz kanpo, euskarazko erformtzu saioretan lan egiteko begirale bat behar dute. Interesatuak kurrikuluma aurkeztu behar dute euskaraz zerbitzuetan (urriaren 2a baino lehen), eta bertan jarri behar dute argibide gehiago.

5 Irakaskuntza 5.1 EMAN

Beasain. DBHko eta lehen hezkuntzako ikasleei (6 eta 16 urte bitarteko umeei), klase partikularrak ematen dizkien Psikologiako 4. mailako ikasle naiz.

Klaseak Beasainen edo Ordizian ematen ditut. Harremanetarako: 615-714084

Gabiria. Banan-banako tailer praktikoko izango dira. Asteartetan, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Amalur tailerra. Telefonoa: 943-161476

Gernika. Esperientziadun irakasle talde txikitako klase partikularrak eskaintzen ditu Gernikan lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzako. Kontakutua: 656-772012 (Nahia).

Irun. Kemen euskal dantza taldeak fandango, arin-arin eta plaza dantzen ikastaroa antolatuko du urriaren 10ean hasi eta abendura bitarteko Irunen bitartean. Interesatuak behar da Beasainen ume bat zaintzeko eta garbiketa egiteko. Esperientziaduna. Ondo ordaintzen da. 609-413897

Ondarroa. Ingeles ikastea aukera Ondarroako Alde Zaharrean (Kale Haundi 4an). Adin gutxi zuzendutako, bereziki nagusiok munduan zehar itzultzaileekin gabe ibili ahal izateko. Solasaldiak eta azterketarako prestakuntza. Euskaratik ingelesera (eta alderatiz) itzulpen zerbitzuak ere eragiten dira. Interesatuak deitu 677-671637 telefonoa (Txaro).

Tolosa. Neska eskulduna, esperientziaduna eta tituladuna (Enpresa Administrazio eta Zuzendaritza Lizenziatura, Irakasuntzako Gaitasun Agiria, EGA), banakako klaseak emateko prest. DBH eta Batxilergoko (Giza-Cizarte Zientzietako irakasgaiak) ikasleei. Informazio gehiago behar izanez gero deitu lasai 675-711214.

5.2 HARTU

Leintz Gatzaga. Ingelesko eskolak emateko irakaslea behar da Leintz Gatzagan. Eskolak bi arratsaldetan izango lirateke eta urtarila

arte, hasiera batean. Auzo derrigorrezkoa. 678-822227

7 Denetarik 7.1 SALGAI

Dendarako altzariak eta osagarriak salgai. Dendarako altzariak eta osagarriak salgai. Manikiak, beira-arasak, metalezko apalategiak eta mahai osagarriak. 627-961922

Altzariak. Bi plazako sofa eta relax bat salgai. Marroiak. Estreinatuta barik. Dena 320 euroan. Arrasaten. 660-219844

Aluminiozko llantak. Aluminiozko llantak kubierteekin saltzen ditut. Neuriak: 185/60 R14. 638-102963

Artzain txabola erosi eta lokalategatik trukatuko nuke. Artzain txabola erosi eta lokalategatik trukatuko nuke. 645-008055

BH bizikleta salgai. 2009 urteko birridindulari bizikleta, campanolo freno eta osagaiekin. Egoera oso onean. 617-893415

Bikiendako Arrue etxeko karro-kapazoa salgai. Bikiendako Arrue etxeko karro-kapazoa salgai. 2008koa. Oso praktikoa eta egoera bikainean. Lasai deitu. 649-005342

Egurra salgai. Egurra salgai. Moztua. Behetxo surako edo txaparako. 617-277464 edo 945-445111

Egurrezko altzaria apalekin salgai. Prezio interesgarria. 639-944865

Giant bizikleta salgai. Errepedeakoa. 56 neurrikoa. Guxti erabilia. 4.000 km. 600 euro. 656-753586

Gurpildun aulki motordunak salgai. Gurpildun aulki

motorduna salgai. Erabili gabea. Prezio negoziagarria. 618-627943 edo 943-796572

Hozkailu industrialia. 2,05eko altuera, 1,40ko zabalera eta 0,70eko sakonera. Hiru atekoa. 649-846709

Hozkailu-kutxa. Zanussi etxekoa. 352 litro erabilgarri. 190 euro. 943-796675

Kawasaki Z750 salgai. Kawasaki Z750 Salgai 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 kilometro, azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Harremanetan jartzeko deitu 660-337716 telefonora.

Kioskoa salgai Altsasun. Kisiari aurre egiteko aukera. Interesatuak 638-275700 telefonora deitu.

Korrika egiteko zinta. BH Argon markakoa. Gehienezko abiadura 18 km/orduko. Gehienezko pendatza %15. 550 euro. Deitu 635-698263 telefonora.

Liburu oso zaharrak saltzen ditut. Liburu oso zaharrak saltzen ditut. 1953. urtekoak eta zaharragoak. 696-841951 edo 943-532918

Mendiko bizikleta. Mondraker Factor R salgai, suspentsio bikoitzarekin eta blokeoarekin. 1.400 euro. 655-744855 edo 943-782490

Oilagorretarako txartel bi salgai Burgosen. 3.900 hektarea, haritz eta pinuz, Pinilla de los Barruecos eta Gete herrietan (Salas de los Infantestik 8 kilometroa). Gehienez 11 eskopeta. Txartel bakoitzak 1.200 euro. 696-921829 edo 665-701031

Piragua bi salgai. Piragua

bi salgai, osagarriekin, bata mistoa eta bestea erreka edo olatuetarako aproposa. 679-109523

Txakurrik eramateko kaxa salgai. Txakurrik auzoan eramateko kaxa. Estreinatuta barik. Bitxakur-errendako modukoa. 639-372299 edo 659-770333

Umeendako karroa salgai. Jane markakoa. Hiru gurpilekoa, eta freno. la berria. Prezio interesgarria. 100 euro negoziagarria. 608-362607

7.4 EMAN

Katakumea oparitzen da. Katakumea oparitzen da. Deitu honako telefonora: 943-800490

Katakumea. Hiru aste duten lau katakume oparitzen ditut, bi eme eta bi ar. Harremanetarako telefonoa: 685-790761

Txakurkumeak oparitzen dira. Araratoi-bakur eta ehiza-bakur nahasketa. Bi hilabete eta erdi. 645-706821. Inma.

7.5 HARTU

Lursaila erosiko nuke Gorierringuruan. Eraikigarria edo ez eraikigarria izan daiteke. Deitu: 634-464169

Manikiak. Bigarren eskuko manikiak erosiko nitzuke, haur eta nagusiarenak. 665-737523

7.6 HARREMANAK

Manikiak. Bigarren eskuko manikiak erosiko nitzuke, haur eta nagusiarenak. 665-737523

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

LASARTE 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Bakoia, Igogailua, 33.500,000
GROS Azkena, Terraza 20m2, 3 Logela, Hondartza ondoan, 58.000,000
GROS 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Berritua, Bakoia, 51.800,000
AMARA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Kanpora begira, 38.825,000
AMARA Apartamentu polita. Logela, egongela, sukaldea, bainugela, Argitsua, 39.900,000
AMARA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Terraza, Altua, 43.500,000
AMARA Hasieran, 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 45.500,000
AMARA Hasieran 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Berritua, 48.800,000
AMARA OSINAGA Apartamentu berria, Altua, Garajea, 53.800,000
INTXAURRONDO 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Kanpora begira, Polita, 36.900,000
LOIOLA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Igogailua, Oso polita, 39.500,000
LOIOLA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Igogailua, 24.900,000
MARTUTENE Bakoia, 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, Berritua, 34.300,000
PASAI ANTZO 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Kanpora, 25.950,000
PASAI DONIBANE 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Bakoia, Bistak, 33.400,000
ALOKAIRUAN
AMARA Ikaesleak, 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 800€
AMARA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 850€
MARTUTENE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, Igogailua, 750€
LEZO 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Berra, 625€
GROS Ibaia ertzean, 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 1.000€
AMARA 2 logela, Terraza handia, Gastuak Barne, 700€
GARAJE SALMENA
AMARA, Amara Osinaga, Garaje ederra, 3.960.000
www.etxebizitza.iragarkilaburra.com
 Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

ALDIBATEKO LANA
 943-16 20 48
 Sanper 7 (zentru komertziala)
 BEASAIN
 Ikusi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

BASULA astebukaera (2 gau)
 270 euro
 (6 pertsona + 2 ohe osagarri)
 3 logela bakoitza bere komunarekin, sukaldea, jantokia, egongela, lorategia parrilarekin, wi-fi eta berogailua.
 Muneta (Nafarroa) • tel: 666-04 16 89
www.basula.com

RUMERARIA VASCONGADA EHORZKETAK
 REKALDE BELATORIA
 BEZATORIA SULOBA
 LERZALDIAK
 130000000
 ARAKALEK
 SOLIMANAK INTERNET-EE
 www.besatoriarumergadako.com
 Helbidea:
 REKALDE, 87 - 20218 DONOSTIA
 24 orduko zerbitzua
 943 376 980

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hemialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Sorkun abeslariaren kontzertu akustikoa Bonberenean 22:30ean. Bihar, 22:30etik aurrera 121 dB eta Lauroba taldeen kontzertuak.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 676013.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

» IRRATIA

Txolarre irrataria

10:45-11:00. Elhuyar Fundazioaren Quark saioa.
11:00-13:30. Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia, Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak.
13:30-14:00. Albistegia - Info 7.
14:00-15:00. Tolosaldeko Albistegia.
17:00-17:45. Musika nobedadeak.
17:45-18:00. Elhuyar Fundazioa Quark saioa.
18:00-20:00. Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena).
20:00-20:30. Albistegia, Info 7.

» TELEBISTA

28 kanala

08:30. 16 mm **09:00.** Alex eta Alexis
09:30. Tolosaldean Gaur **10:00.** Kafe t'erdia **10:30.** Wazemank **11:00.** Klipak **11:30.** Tolosaldean Gaur **12:00.** EH lau haizetara **12:30.** Zahar berri **13:00.** Muka-Muka **13:30.** Tolosaldean Gaur **14:00.** Kafe t'erdia **14:30.** Wazemank **15:00.** Klipak **15:30.** Tolosaldean Gaur **16:00.** EH lau haizetara **16:30.** Zahar berri **17:00.** Muka-Muka **17:30.** Tolosaldean Gaur **18:00.** 28 klip **18:30.** Ilunpean **19:00.** Klipak **19:30.** Tolosaldean Gaur **20:00.** Saio Berezia: Surf txapelketa. *(16:30etik 20:30era bitarteko blokea lau ordu errepikatuko da, 08:30etik arte).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Lehen euri tantekin berriro istripuak N-1ean

TOLOSA • Denbora luzez euririk gabe egon ondoren, lehen tantak bota zituen atzo eguerdi partean. Eguraldi txarrarekin ohikoa izaten den bezala, N-1 errepidea istripuz josi zen. Gure eskualdea ez zen salbuespena izan eta kamioi batek artzariarena egin zuen Tolosako bigarren autobiderako

sarreraren parean. Gasteizerako noranzkoan. Ondorioz bi errailak oztopatu zituen eta auto ilara luzeak sortu zituen bi noranzkoetan. Hiru ordu inguru iraun zuten ilarek, garabiak kamioia errepidetik ateratzea lortu zuten arte. IÑIGO TERRADILLOS

A Agurrak



Urte askoan!

Manex Esnaola Muñagorri (Tolosa).
Gaur 4 urte. Pottolo! Egun ona pasa Naroa, aita eta amaren partetik.



Urte askoan!

Mattin Etxeberria Osa (Zizurkil). Gaur 6 urte. Guraso eta Yulenen partetik.



Urte askoan!

Zorionak!
Muxu handi bat etxeko guztien partetik!!



Urte askoan!

Asier Gorostidi Quintana (Tolosa).
Gaur 10 urte. Ondo pasa zure egunean eta muxu asko denen partetik.



TXOKOA hitza

HITZAK sarrera pare du

LAGUN ARO GBC Suzuki Manresa

saskibaloitako partida

Urriak 11 • Igandea • 19:00etan Donostiako Ilunben

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

HITZAK sarrera pare du

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren baitan ospatuko den bertso saiorako



Urriak 10 • Larunbata • 17:30ean • Leitzaiko Udako Kirolegian

saridunak

- Izaskun Iraola (Bidani)
- Malentxo Arrospide (Lizartza)

SORKUN

Urriak 9 • Ostirala • 22:30ean Tolosako Bonberenean

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

sarrerak

